

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2013ko urtarrilaren 11. IX. urtea. 2.463. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Transalpine Run proba irabazi zuen Karrerak 2012an (irudian aurretik); zortzi egunetan egin beharrekoa eta bikoteka izan zen proba. HITZA

Iker Karrera Mendi lasterkaria

«Entrenamenduetan orduak eta orduak ematea da gakoa»

Iaz denboraldi bikaina burutu ondoren, bost garaipen lortuz, aurtengoari Txilen ekingo dio korrikalari amezketarrak; azken bi urteetan erakutsitako mailari eustea du helburu 5

'Berria'ren aldeko jaialdian parte hartuko du Petti bakarlarriak

Berria Taldea jasotzen ari den laguntza eskertu du Otamendik, Villabonan egindako hitzaldian 6

Hilaren 19an punta-puntako bertsolariak bilduko ditu Txolarre irratiak

Egaña, Lujanbio, Elortza, Maia, Martin eta Arzallus izango dira, Leidorren 4

Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak 20 urte beteko ditu

Herritarrak informatzeko hainbat jarduera antolatu ditu Tolosako taldeak 3

Tolosako sei eragilek Bilbon egingo den manifestazioa babestu dute 3

Tolosa&Co

MERKATARIAK - OSTALARITZA - ZERBITZUAK

Eskerrik asko zuen konfiantzagatik



Desordutan taldearekin batera ariko da Manent, Bonberenean. HITZA

Pop-rock tolosarra entzungai izango da, gaur, Bonbereneako oholtzan

Ohiko zine emanaldiez gain, musika nagusi izango da Tolosako kultur agendan, asteburuan

Itzea Urkizu

Desordutan eta Manent talde tolosarrek kontzertua eskainiko dute, gaur, Bonberenean. Pop-rock doinuaren zaleek bereziki gozatuko dituzte emanaldiak, beraz, 22:30etik aurrera.

2008an argitaraturiko *Txuri beltzeko amodioa* izan zen Manent lehen diska, eta 2010ean, *Barrutik* proposamena egin zuen taldeak; bi lanetako piezak entzungai izango dira gaur.

Beren aldetik, Desordutan taldeko kideek ere bi disko argitaratu

dituzte beren ibilbidean barrena. 2007an taldearen izen bereko lan autoekoiztuarekin aurkeztu zuten euren burua, eta 2009ko *Eromena zor dizut* da, laukotearen azken lana.

Asteburua borobiltzeko, larunbatean hiru emanaldi izango dira Bonberenean: Ordiziako Ciclos Iturgaiz taldeko kideek, tekno-pop-punk doinuei lagunduko die beren mozorroekin, eta jarreraian, Kokoshka eta GGQuintanilla ere ariko dira oholtzan.

Musika, hamaika formatotan Gabonetako oporraldiaren ondorengo asteburuak, bestelako musika emanaldiak ere ekarriko ditu Tolosara. Horrela, Leidor aretoan genero lasaiagoez gozatzeko parada izango dute ikusentzuleek, Los Panchos hirukotearen bolero saioarekin, 20:30ak al-

dera. Oraindik ere eskuragarri daude kontzerturako sarrerak, <http://www.kutxasarrerak.net> webgunean.

Azkenik, igandean kamera musika protagonista izango da Iurre-

Los Panchos hirukotearen bolero saioa izango da gaur, 20:30ean, Leidorren

amendi egoitzan. Arimaz kamera orkestrak emanaldia eskainiko du, 11:00etatik aurrera.

Zinea, heldu eta gazteentzat Leidor aretoak, kontzertuez gain, ohiko zine saioak ere eskainiko ditu. Komedia eta drama uztartzen dituen *Las Sesiones* filma ikusgai izango da, bihar, 19:30ean eta 22:30ean, eta igandean, ordu-tegi berean. Astelehenean, berriz, 20:30ean eskainiko dute filma.

Haurren zinemari dagokionez, asteburu honetako filma *El alucinante mundo de Norman* izango da, igandean, 17:00etan.

↓ Iragarki laburrak

SALGAI

Basurdeak. Hilabete bateko basurdeak salgai. Informazio gehiago nahi duenak, dei dezala ondorengo telefono zenbakira: 659 55 18 38.

↓ Asteburuko kirol aktibitatea

FUTBOLA

Tolosa CF-Hernani. Gizonezko infantilak, bihar, 09:30ean, Usabalen.

Tolosa CF-Lehengokoak. Gizonezko kadeteak, bihar, 11:00etan, Usabalen.

Tolosa CF-Lagun Onak. Gizonezko infantil txikiak, bihar, 12:30ean, Usabalen.

Tolosa CF-Ordizia. Gizonezko ohorezko juniorrak, bihar, 15:30ean, Usabalen.

Tolosa CF-Añorga. Emakumezko juniorrak, bihar, 17:30ean, Usabalen.

Tolosa-Lakua. Alebin neskek eta mutilak, igandean, 12:30ean, Usabalen.

Tolosa CF-Lekeitio. Gizonezko juniorren euskal liga, bihar, 16:30ean, Berazubín.

SASKIBALOA

TAKE Ori-TAKE Iurre. Infantil mutilak, bihar, 09:00etan, Usabalen.

TAKE Aldaba-Bergara. Infantil mutilak, bihar, 10:30ean, Usabalen.

Triki TAKE-BKL. Kadete mutilak, bihar, 10:30ean, Usabalen.

Inpernu TAKE-Aloña Mendi. Junior mutilak, bihar, 12:00etan, Usabalen.

TAKE Tovar-Aldapeta. Kadete mutilak, bihar, 12:00etan, Usabalen.

TAKE Aralar-Andraitz. Emakume seniorrak, bihar, 14:00etan, Usabalen.

TAKE Orbela-Mondragon. Eskualdeko senior mutilak, bihar, 16:00etan, Usabalen.

Bide Bide Donosti-Oke. Nazional maila senior mutilak, bihar, 18:00etan, Usabalen.

Bide Bide-ISB. Junior mutilen euskal liga, igandean, 12:00etan, Usabalen.

ESKUBALOA

Tolosa-Ordizia. Infantil mutilak, bihar, 12:00etan, Usabalen.

Tolosa-Arrasate. Lurralde mailako senior mutilen bigarren maila, bihar, 16:00etan, Usabalen.

ARETO FUTBOLA

Laskorain-Bilkoin. Senior mutilen Gipuzkoako lehen maila, gaur, 20:30ean, Usabalen.

Hirukide Plomix-Gamon. Gizonen Gipuzkoako bigarren maila, gaur, 20:30ean, Eskolapioetan.

Samaniego Orixe-Irude Barrantol. Gizonen Gipuzkoako bigarren maila, gaur, 21:45ean, Uzturpen.

Samaniego Orixe-Berastegi. Emakume seniorra, gaur, 20:30ean, Uzturpen.

Bikutz- Ibarra Barrantol. Gizonen Gipuzkoako bigarren maila, gaur, 20:30ean, Uzturpen.

ATLETISMOA

Eskola kirola. Alebin eta benjaminak, bihar, 10:30etik aurrera, Berazubín.

ESKU PILOTA

Euskadiko klub txapelketa. Gizonezko kadete, junior eta seniorrak, bihar, 10:00etan, Beotibarren.

Bengoetxea VI-Beroiz vs. Arretxe-Begino. Binakako txapelketa, astelehenean, 17:00etan, Beotibarren.

Neguko segurtasun ikastaroa atzeratu du Oargi mendi elkarteak

Ikastaroa asteburu honetarako aurreikusi zuten arren, urtarrilaren 19an eta 20an izango da azkenean

kin hasiko dira lehenik, eta eguna mendiko praktikekin amaituko dute. Igandean, berriz, egun osoan burutuko dituzte praktikak, mendian.

Izena eman nahi duen edonork, 688 69 86 42 telefonora dei dezake, eta baita info@oargi.org helbidera idatzi ere; azken eguna urtarrilaren 14a izango da, astelehena.

Belhin izena emanda, 20 euro sartu beharko dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0028 11 0281141038. 20 eurorekin ikastaroa, aterpetxea eta bidaiak ordainduko dituzte parte hartzaileek, baina norberak eraman beharko ditu kranpoiak, pioleta, kaskoa eta arnesa. Dena den, materiala falta duenak Oargin bertan alokagai izango du.

I. Urkizu

Oargi Mendi Elkartek asteburu honetarako antolatutako neguko segurtasun ikastaroa, datoren urtarrilaren 19 eta 20ra atzeratu dute.

Datorren ostiralean, urtarrilak 18, irtengo dira Tolosatik, Lizarran lo egiteko. Hurrengo egunean, horrela, ikastaroarekin hasiko dira bete-betean.

Larunbatean, eduki teorikoe-

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gaur egun, 15 kide inguru elkartzen dira Tolosako Uzturre taldean. I. GARCIA LANDA

Sentsibilizazioa ospakizun izango du Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeak

20 urte beteko ditu Tolosako taldeak, eta udalarekin bat eginda, zenbait jarduerara izango dira gaur

Itzea Urkizu Tolosa

20 urte dira jada, alkoholaren bidez gaixotutako pertsonak sendatzeko, Uzturre taldeak bere ibilbidea hasi zuela. Beren jardunari eutsiz, eta Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetaiko departamentuarekin elkarlanean, herritarrek sentsibilizatzeko eta informatzeko jarduerak antolatuta dituzte gaur.

Asteartero eta ostegunero bil-

tzen dira, 19:30ean, Alkoholiko Anonimoen Uzturre taldeko kideak, Kondeaneko Aldapako 22. zenbakian, Corpus Christiko lokaletan. Gaur egun, 15 lagun inguru ari dira alkoholarekiko menpekotasunaz errekuperatzen, eta zenbaitetan, Gipuzkoako beste zenbait taldetako kideen bisitak izaten dituzte: «Kide diren gizon-emakumeek elkarri laguntzen diote alkoholik edan gabe egoten, eta askatasun osoz, beste batzuekin elkarbanatzen dute beren sendatze prozesuaren esperientzia».

Uzturre taldeak, ordea, kide diren pertsonen errekuperazioaz haratago, hainbat pauso ematen ditu arlo honetan, eta esaterako, elkartearren inguruko informa-

zioa nahi duen edonorentzat bilera irekiak egiten dituzte, hilabetezko azken asteartetan.

Halaber, ospitale nahiz psikiatria zentroetara bisitak egiten dituzte, bertako gaixoei laguntza emate aldera, eta Gipuzkoako gaitzueko taldeekin elkarlanean, ikastetxeetan hitzaldiak ere eskaintzen dituzte.

Gaurko jarduerak Zerkausian

Gaur, 17:30etik 20:30era bitarte, herritarrek sentsibilizatzeko eta informatzeko antolatuta dituzte jarduerak.

Alkoholaren eraginez inguruko bideoa, sentsibilizazio panelak eta galdere-erantzunak burutzeko informazio mahaia jarriko dituzte.

Azken egunak, zezen plazaz proposamenak egiteko

Tolosako inauterien antolakuntzan, astelehenera bitarte iradokizunak egin ahal izango dira

I. Urkizu Tolosa

Tolosako Udala buru-belarri ar da, datorren otsailaren 7tik 13ra bitarte ospatuko diren inauteriak prestatzen. Festa hauetan zezen besteko lekua izan ohi da zezen plaza, eta herritar nahiz bisitari guztien segurtasuna bermatze al-

dera, jaiak eta legea uztartzeko proposamenak bildu nahi dituzte udal ordezkariak.

Pasa den abenduaren 27an egindako bileran, Tolosako Udalak legearen arabera bete beharreko neurriak azaldu zizkieten bertaratutako herritarrei, eta horren arabera, iradokizunak egitea ere eskatu zieten; inauteriak herritarrek egindako jaiak direla azpimarratu du udalak, eta herritarren iritzia, beraz, ezinbesteko tizat dute auzi honetan.

Horrela, beraz, datorren astelehenera bitarte iritzi, proposamen eta iradokizunak bidali ahal izan-

go zaizkie Tolosako Udalarri, zezen plazaren inguruan. Oharrak komunikazioa@tolosakoudala.n et helbidera bidali beharko dira. Hainbat tolosarren bidali dute, jada, beren proposamena, eta aipatzekoa da, udala berauek aztertzen ari dela, bai legearen aldetik, eta baita teknikoki ere, bideragarriak izan daitezkeen edo ez jakiteko.

Udalak, jasotako proposamen guztiak kontuan izanda, hartutako erabakiaz hitz egiteko, bilera irekia antolatuta du urtarrilaren 15erako; kultur etxean izango da batzarra, 19:00etan.

Sei eragilek babesa eman diote Bilboko manifestazioari

«Presoei dagozkien oinarritzko giza eskubideak errespetatzea» eskatu dute testu bateratuan

I. Urkizu Tolosa

Herrirak presoek giza eskubideen alde bihar Bilbon deituriko manifestazioarekin bat egin dute, LABek, EHNEk, Laskoraingo Ikasle Independentistek, Ikasle Abertzaleak, Bilgune Feministak eta Bilduk.

Besteak beste, «gatazka egoera atzean utzi eta denen artean bake egoera justu bat eraikitzeak aukera berriak» daudela azaldu dute testu bateratuan, eta «gatazka-oren ondorio guztiek konponduak» izan behar dutela diote.

Honen harira, «gatazka-oren ondorioz preso eta erbestean dauden herritarren egoerari arreta jartzea beharrezkoa» dela uste dute eragile hauek guztiek.

Horrela, «euskal presoak Euskal Herriratzea, gaixotasun larriak dituzten presoak libre uztea, espetxe zigorraren luzatzeekin amaitu eta de facto bizi osorako espetxe zigorra dakarten neurrien indargabetzea, eta pertsona gisa dagozkien giza eskubide guztien errespetua» eskatu dituzte, sinaturiko testuan.

Honenbestez, «aldarrikapen hauei bultzada emateko», eta bide honetan, «frantziar nahiz espainiar gobernuak urratsak ematea eskatzeko», bihar Bilbon burutuko den manifestazioa joateko deia egin nahi izan diote herritarrei.

• tolosa@hitza.info



Abenduaren 24an Tolosan izan zen manifestazioa. HITZA

→ Laburrak

Alegiako jubilatuen tabernako zozketa

ALEGIA Alegiako jubilatuen tabernan, burutu dute jada gabonetako oporraldian antolatuta ohi duten zozketa. Zenbaki saritua 118a izan da aurten. Urteroko moduan, irabazle suertatu denak tabernara joan beharko du saria jasotzera.

Enplegu Zentroan bi ikastaro urtarrilean

TOLOSA Tolosaldea Garatzen bi ikastaro antolatuta ditu Enplegu Zentroan. Lehena, ikastaroak era autonomoan bilatzen ikasteko da, eta interneten bilaketa egokiak egiten ere ikasiko dute. Hilaren 16an izango da, 13:30etik 15:30era. Bestea, berriz, Europan lan egin nahi duten gazteei begirakoa da. Ikastaro hau urtarrilaren 18an zango da, 11:30etik 13:30era bitarte.

LAN ESKEINTZA

Tolosaldeko automozio sektorean lan egiten duen Kooperatibak, pertsona bat kontratatu nahiko luke bere Zerbitzu Teknologikoen talderako

Eskatzen diren ezagutzak:

- Ingenieritza Teknikoa Mekanika arloan.
- Ingelesa, ahozko eta idatzizko maila altua.
- Taldean lan egiteko jarrera

Kontuan hartuko dira, esperientzia eta beste hizkuntzen ezagutzak.

Interesa duzuenok, bidali kurrikuluma argazkiarekin, helbide honetara: info@panelfisa.com

Egaña, Lujanbio, Maia, Arzallus, Elortza eta Martin ekarriko ditu Txolarrek

Esqualdeko irriatiak bertso jaialdia antolatatu du hilaren 19an Tolosako Leidor antzokian

Asier Imaz

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Alaia Martin Txolarre Irratiaren bertso jaialdian egongo dira urtarrilaren 19an, larunbatean. Azken urteetan, ohitura bilakatu da esqualdeko irriatiaren jaialdia, eta aurtengoa, laugarren aldia izango da. Oholtza gainera zazpi bertsolari igoko dira, nahiz eta hauetako bat, Amaia Agirre, gai jartzaila lanetan ariko den. Lehen hiru edizioetan, billabonatarra euskarazko irriatiaren ondoan izan da, jaialdia antolatuzko lanetan eta gaiak jartzerako unean. Aurtengoan ere, falta ezin zitekeen osagaia zen, beraz, Amaia Agirre.

Bertso jaialdia antolatzerako garaian, Txolarrek, Tolosako Udalaren laguntza izan du. Sarre-rak 10 eurotan izango dira salgai, bai behintzat alde aurretik eskuratu gero. Egunean bertan, Tolosako Leidorreko leihatilan jarriko dituzte soberan gelditzen direnak, eta hauek 12 eurotan salduko dituzte.

Hamabi urteko ibilbidea

Txolarre Irratiak lehen zuzeneko emankizuna egin zuenetik hamabi urte bete ziren joan den abenduaren 26an. Orduetik gaurdaino, etenik gabe jardun du euskaraz esqualdearen berri ematen. Euskarazko hedabideena bigedurutzetaz eta zailtasunez beteriko bidezidorra dela ongi dakite Txolarre Irratiko kideek, baina egin beharreko bidea dela aldarrikatzen dute harrotasunez, «Tolosaldeak euskara hutsezko irratia merezi eta behar duelako».



Txolarre Irratiaren bertso jaialdiko kartela. HITZA

↓ Bertso jaialdia

- **Noiz:** Urtarrilak 19, larunbata, 18:00etan.
- **Non:** Tolosako Leidor antzokia.
- **Bertsolariak:** Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Amets Arzallus, Igor Elortza eta Alaia Martin.
- **Gai jartzaila:** Amaia Agirre.
- **Sarrerak:** Tolosan, Raku, Orbela, Kantabriko eta Denak ta-

Ahalegin horretan beste bul-tzada bat izango da urtarrilaren 19an Tolosako Leidor antzokian egingo den bertso saioa. Irriatiak esqualdean duen babesaren erakustaldia.

bernetan; Ibarren, Zubiaurre ta-bernan; Anoetan, Buztina ta-bernan; Villabonan, Amasa ka-fetegian; Zizurkilen, Iriarte jate-txean; Alegian, Izkina tabernan; Berastegin, Urepele elkartearen eta egunean bertan, Leidorreko leihatilan.

- **Salneurria:** Alde aurretik 10 euro, eta egunean bertan, 12 euro.

Txolarretik, esqualde guztiko herritarrek eurekin bat egitera eta bertso saioaz gozatzera gonbi-datu dituzte: «Bertan egongo di-ren bertsolarien maila ikusirik, saio mundiala izango da».

→ Laburrak

AHTren aurkako elkarretaratzea

ANOETA » AHTrik ez! Espropia-ziorik ez! lelopean elkarretara-tzea egingo dute urtarrilaren 17an, ostegunean, Anoetako plaza. AHTren aurkako mugimendutik esqualdeko herritarreri proiektuaren aurkako jarre-ra azaltzera agertzeko eskatu die.

Kirol jertseak erosteko aukera zabalik

AMASA-VILLABONA » Ikastola-ko Zubi Musu guraso elkartetik azaldu dutenez, oraindik kirol jertseak eskatzeko aukera zabalik dago, eta horretarako epea urtarrilaren 15ean, asteartean, amaitzen da. Jantziak nahi dituenak eskaerak ikasto-lako idazkaritzan egin behar ditu, eta bertan kirol jertseak probatzeko aukera izango da. Ikastolako eta oro har inguruko herritarrak gonbidatu dituzte arropa erostera.

Leitzako aizkora jaialdian aldaketak egongo dira

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketaren kanporaketa ez da jokatu

Erredakzioa Leitza

Amazabal pilotalekuan herri ki-rol jaialdia ikusteko aukera egon-go da hilaren 13an, igandean, 12:00etatik aurrera. Hasiera batean, Urrezko Aizkolarien Binaka-ko Txapelketaren kanporaketa jokatzeari aurreikusten zen, baina Ander Erasun lesionaturik aurki-tzen denez, lehia atzeratzea era-

baki dute. Ander Erasunek Jon Rekondo leitzarrazarekin osatzen du bikotea, eta Jose Mari Olasa-gasti eta Donato Larretxearen aurka jokatu behar zuten Amaza-balen. Lehia honetako irabazle-ak, finalerdietarako txartela lor-tuko du.

Urrezko mailako aizkolaria ez dira egongo Leitza igandean, baina bai zilarrezkoak. Bigarren maila honetan, binakako txapel-ketaren kanporaketa jokatu da Amazabalen, 12:00etan. Alde ba-tetik, Arkaitz Olano leitzarraz eta Asier Pellejero aresoarraz osatu dute bikotea, eta beste-tik, Aritz Irabazabalek eta Oihan Larretxeak.

‘Gizarte termalismo’ programan izena emateko epea zabalik

Lehenengo txandan parte hartu nahi dutenei, izena emateko epea urtarrilaren 16an amaituko zaie

Erredakzioa Amasa-Villabona

Adinekoen eta gizarte zerbitzuen institutuak (Imasersok) antola-tzen duen pentsiodunentzako aurtengo *Gizarte termalismo* pro-graman izena emateko epea jada-nik irekita dagoela azaldu dute Amasa-Villabonako Udaletik.

Programa honetan parte hartu nahi duten pertsonak, udaleko Gizarte Zerbitzuetara joanez edo www.villabona.net atarian sartuz eskura ditzakete izena emateko orriak.

Eskaerak aurkezteko epea, otsaila eta abuztua bitarteko txandarako, urtarrilaren 16an, asteazkenean, amaituko da. Bigar-ren txandetarako, abendua eta iraila bitartekorako, izena maia-tzaren 16a baino lehen eman be-har da.

Mauka GAURKO ESKAINTZA

Afari goxoa giro euskaldun paregabe

BUSTERRAK TABERNA
Luzuma Etx. 1
48173 Zabalza 48200A
Tel. 944-38 92 21 / 625-394 767
www.mauka.eu

28€ Prezioa

berria taberna

Bihar Urtarrilak 12 TXOTX garaiari hasiera emango diegu

ISASTEGI sagardotegia

Albano Tolo Auzoa
20420 Tolosa (Gipuzkoa)
Tel. 941 55 29 64
isastegi@isastegi.com
www.isastegi.com

Rebeka Calvo Amezketari

Iker Karrera mendi lasterkariak denboraldi bikaina utzi du atzean. 2011n Mont Blancoko ultra trailaren bigarren eginda eman zuen ezustekoa, eta horrexegatik 2012an mailari eusten ziola erakutsi beharra zuen, eta lortu du; bost garaipen izan ditu. Salomon taldeko kidea da eta 2013an ere bertan jarraituko du. Gogotsu dago denboraldi berria hasteko.

2012ko denboraldia emaitza bikainen amaitu duzu, baina azken proba, Reunion irlako Diagonale des Fous, hasi eta gero uztea erabaki zenuen, ez zen erabaki erraza izango...

Azken lasterketara gogotsu joan nintzen, baina behar adinakoarekin ez, behar bada. Nekatuta nengoen eta fisikoki ere ez nengoen onenean. Gerora ere nabaritzen ari naiz eta gorputza bere onera behar den bezala etortzera kostatzen ari zait. Nahiko nekatuta iritsi nintzen lasterketara eta lasterketa benetan gogorra da. Klima aldetik baldintza gogorrek eguna egokitu zitzaizun gainera. Nik garbi daukat bukatzea bezain garrantzitsua dela nola bukatzen den, eta nire asmotan ez da sartzen arrastaka ibiltzea.

Denboraldian hala ere, zazpi lasterketa egin dituzu, eta bost irabazi.

Aurreikuspenetan sartzen al zenuen?

Lasterketa sorta bat dago eta emaitzarik onenak lortzen saiatzen zara beti, hori da nahia beti, baina emaitza hauek lortzea ez da erraza, eta ondorioz, balorazio oso ona egiten dut.

2011n Mont Blancoko ultra trailaren bigarren egin egin zenuen ezustekoa emanaz, horren zama nabaritu al zenuen izako denboraldian?

Garrantzitsuen eta zailena, zenbat lasterketa irabazi ditudan baino gehiago, 2011ko ezusteko horretan erakutsitako mailari eustea izan da. Bestela pentsatu ahal da bigarren postu hori kasualitate izan zela. Nere kezka iaz, horixe izan zen, ea etsiko nion Mont Blancoko proban erakutsitako mailari. Nahiz eta beste alde batetik, horixe bera motibazio bat ere bazen. Nik banekien hobetzeko gaia bazegoela, eta horregatik lana beste modu batera egiten hasi nintzen, eta emaitzak azkenean ateratu dira. Irabazitako lasterketa kopurua baino, garrantzitsuen maila mantentzea da.

Iker Karrera ◊ Mendi lasterkaria

Inauterietan hasiko du amezketarrak 2013ko denboraldia. Txilen egingo du, Andeetan egingo duten Cruce Colombia proban. 2012 bikaina egin du; zazpi lasterketa egin ditu eta bost irabazi.

«Helburua hasitako bideari eustea da, maila mantentzea»



HITZA

2013rako ere maila oso altua mantendu beharko duzu...

Emaitzak garrantzitsuak dira, baina horren atzetik gauza dezenteghiago daude, eta nire kasuan hasitako bideari eustea da nire helburua. Salomonekin gutxienez beste urte bete badauket, eta bide horri eutsi nahi diot. Orain txere ari gara denboraldiko egutegia ixten, berandu samar nire gusturako. Nire ibilbidearen barruan beste mota batetako probak egitea ere gustatuko litzaidake.

Eta itxi al duzue jada, desberdina den probarik?

Aurten ere ez naiz Mont Blancera joango eta garai horretan, abuztuaren, badira urte batzuk Pirinioetan oso polita den lasterketa bat egiten dutela. Oso gogorra da, Mont Blanc bezain edo gogorragoa, ehun miletako lasterketa bat da eta Frantziako aldean egiten da. Gainontzeko lasterketak ez ditugu itxi oraindik, hitz egiten ari gara.

Nolakoa izaten da negoziazioa?

Alde batetik, niri egitea gustatuko litzaidaken lasterketen berri ematen diet, eta bestetik, Salomonei interesatzen zaizkion probak daude, eta horren arteko oreka mantentzen saiatzen gara. Da-

↓ Motzean

- **Zein da inguruko mendirik kuttunena?** Etxean, ondoan, edukita ezin bestelakorik esan; Txindoki. Horretaz gain, Pirinioak ere asko gustatzen zaizkit.
- **Zer egiten duzu denbora librean duzunean?** Egia esan ez dut askorik, eta dudanean entrenamenduan ematen dut.
- **Dietari begiratu gabe egingo azken otordua?** Urtezharreko afaria, baina ordutik akabo. Kilo bat gehiago eramatea kalte besterik ez du egiten.
- **Irakurri duzun azken liburua?** *Nacidos para correr.*
- **Ikusi duzun azken filma?** *Intocable* pelikula asko gustatu zitzaidan.

tak, lasterketa motak... ikusten ditugu, eta hori dena uztertzen saiatzen gara.

Iaz egingo duzu zazpi lasterketatik zeintzuk nabarmenduko zenituzke?

Guztiek dute zerbait, baina Italian Dolomitetan irabazi nuenerekin oso gustura gelditu nintzen. Dolomitak Dolomitak dira eta Sebastian Chaigneauri irabazi izana ere berezia da, garrantzitsua, munduko lasterkaririk onenarikoa bat da. Transalpineko proba ere oso polita atera zitzaizun, zortzi egunetan egin genuen eta desberdina izan zen etapaka eta bikoteka egin genuelako, eta oroitzen oso ona dut. Aziparratzekoak horiek dira. Hiru Handiak etxean da, eta polita da, baina lasterketa bezala, aurrekoekin geratzen naiz. Nire kasa egingo Chamonix-Zermat ibilbideak asko bete zidan, marka ahalegin bat izan zen, ez lasterketa bat, eta iaz gehien bete zidan jarduera izan zen.

Mont Blancoko probako ibilbidea al datu zuten iaz, eta parte ez hartzea

erabaki zenuen, atzera begiratu berdin ikusten al duzu hartutako erabakia?

Pena eman zidan, oso ondo prestatua nengoen, urte guztia horri begira prestatzen joan nintzen eta ikusi zen, hurrengo egunean Transalpinera joan nintzen eta zortzi egunetako lasterketa ondo egin genuen, irabaziz. Ondo prestatuta nengoen eta horren ondo prestatuta egotea ez da erraza izaten eta pena ematen du, horrelako aukera bat behar bada ez zaizulako berriz ere suertatzen, baina oso argi neukan benetako Mont Blanc ultra trailaren ibilbidea egiten ez bazen, ez nuela parte hartuko.

Argi dago fisikoki prestakuntza handia behar dela proba hauek egiteko, baina zein garrantzia du buruak?

Erdia, esango nuke. Momentu desberdinak daude; lasterketetan eta denboraldian zehar batzuetan fisikoak tiratu behar du eta beste batzuetan psikologikoki egin behar da indarra, buruak eutsi behar du. Biek dute garrantzia. Distantzia handiak egiten ditugu eta mentalki ere prestatuta joan behar zara beti. Lasterketa guztietan dago beharaldiren bat, eta egoera horietan buruak eusten du, baldin eta hanke eusteko gutxieneko gaitasuna badute, zeren eta bestela arrastaka hasten zara, eta ni ez naiz arrastaka ibiltzearen aldekoa.

Eta nolako prestaketa fisikoa egiten duzu?

Urteko plangintza bat egiten dut, eta karreraz karrera plangintza bat ere egiten dugu, baina ez dago sekreturik, orduak eta orduak ematea entrenamenduetan da gaia. Lana egitea.

Nahiz eta denboraldiko probak erabat itxi gabe eduki, ba al dakizu 2013ko lehen probazain izango den?

Inauterietan Txilera joango naiz, Cruce Colombia izeneko proba egingo dute bertan, Andeetan. Hiru egunetan egiten den lasterketa bat da eta ez da oso gogorra, 110 bat kilometro egin behar dira, eta horrekin hasiko naiz. Lehen aldia da Andeetara joaten naizena, eta egia esan ez da garairik onena, ez nagoelako onenean, eta ikusiko dugu zer ateratzen den. Entrenatzen jarraitzeko balioko dit, eta baita leku berri bat ezagutzeko ere.

o rcalvo@hitza.info



sarrerak

sariduna

2 sarrera

Inma Lopetegi
Etxeberria (Irura)

*sarrerak jasotzeko, HITZAren Tolosalda

LAGUN ARO GBC
Valencia Basket Club

saskibalo partida

Urtarrilak 12 • Larunbata
19:15
Donostiako Ilunben

harriduraz
hitza



Otamendik Berria Taldearen egoera ekonomikoa larria dela azaldu du

‘Amasa-Villabonak ziztada Berriari’ ekimenaren barruan hitzaldia eskaini du ‘Berria’ko zuzendariak

Asier Imaz Amasa-Villabona

Martxelo Otamendi *Berria* egunkariaren zuzendariak Berria Taldearen egoera ekonomikoa larria dela azaldu zuen herenegun, Villabonako Mintzolan eskaini zuen hitzaldian. Euskarazko egunkariaren azken urteetako bilakaera azaltzearekin batera, aurrera begirako erronkak aipatu zituen, eta horien artean, *Ziztada* ekimena dago, hau da, herritarren eta eragileen artean, diru laguntza bilketa.

‘Diru poltsa’ pasa aurretik, ordea, puntu horretara nondik, nola eta zergatik iritsi diren azaldu zuen Otamendik, beti ere, euskarazko egunkari baten aldeko proiektuaren garrantzia azpimarratuz.

Amasa-Villabonako Euskararen ados! lan mahaia antolatutako hitzaldia, *Amasa-Villabonak ziztada Berriari* ekimenaren barruan. Mintzolan 30 lagun inguru elkartu ziren, eta egunkari baten barne funtzionamenduen inguruko hamaika anekdota entzuteko aukera izan zuten. Hitzaldia-aren ildo nagusia, ordea, Berria Taldearen egoera ekonomiko larria izan zen.

Eredu aldaketa

Martxelo Otamendik komunikabideetan eredu aldaketa eman dela azaldu zuen. Azken urteetan, bi krisi egon direla azpimarratu zuen, ekonomikoa eta informazioari dagokiona. Bigarren hau azaltzerako garaian, datu esanguratsu bat aipatu zuen: «Duela urte batzuk, egunkariaren aurrean, bataz beste, 45 minutu egoten zen irakurleak, gaur egun, 20 minutu». Informazio «serioagoa» jasotzeko interesa gutxitu egin dela ondorioztatu zuen *Berriari*ko zuzendariak. Frankismoaren ondoren, interes hori go-



Martxelo Otamendi ‘Berria’ko zuzendari tolosarra Mintzolan hitzaldia eskaintzen, herenegun. A. IMAZ

rengo mailan ibili zela azaldu zuen Otamendik, egunkaria bezalagintza ematea, irudi kontu bilakatu zelarik.

Teknologia berrien eta internet sarearen bilakaera ere kontuan hartu zituen eredu aldaketaz hitz egiterako garaian. Etorri zuna oraina dela azaldu zuen, eta punta-puntan egoteko beharra aldarrikatu zuen, «beste hizkuntzekin batera, euskara ere hor egon dadin».

Krisi ekonomikoaren inguruan, publizitatearen beherakada nabarmendu zuen tolosarrak, «bi urtetan, milioi t’erdi eurokoa». Horrek, diru laguntzen jaitzierarekin batera, azken bi urtetan galerak sortu ditu Berria

Taldean. Zuloari buelta nola eman pentsatzen hasi zirenean, Herrialde Katalanetik etorri zitzaizkien ziztadaren ideia.

Idea aztertzen hasi zirenean, 500.000 euroren beharra ikusten zuten, ondoren ordea, zenbakiak egoeraren larritasuna agerian utzi zuten, eta behar hori, 700.000 eurora igo zen.

Ziztada ematea edo diruz laguntzea, proiektuari babesa ematea dela azaldu zuen Martxelo Otamendik, hau da, hilean 10 euro bilduaz, proiektuaren jarraipena bermatu nahi dela aipatu zuen. Orain arte lortutako emaitzarekin oso gustura daudela gogoratu zuen *Berriari*ko zuzendariak, jadanik, 500.000 eurora ger-

turutzen ari direlako. Ziztadaren iraupena kezka iturri bilakatu dela ere aipatu zuen tolosarrak, izan ere, egoera ekonomikoak horrela jarraitzen badu, ziztadaren beharra izango baita ondorengo urtean ere.

Euskarazko egunkariari urte guzti hauetan babesa azaldu dien guztiarentzat esker oneko hitzak izan zituen. Amasa-Villabonaren kasuan, herriko hainbat eragile ziztadaren inguruan bildu izana azpimarratu zuen, lan horretan Berria Taldeari laguntzeko prest azaldu izana eskertuz.

Ekarpenak egin nahi dituztenek horretarako aukera dute www.berria.info/berrialaguna helbidean.

Petti bakarlarria ‘Berria’ren aldeko jaialdian egongo da gaur, Gurean

Argazki erakusketa bihar arte egongo da zabalik Villabonako Gurea antzokiko bigarren solairuan

A. Imaz Amasa-Villabona

Euskararen ados! lan mahaia sustatuta, herriko eragileen laguntzarekin, jaialdia antolatutako Gurea antzokian, gaur. Bi saio egingo dituzte, lehena 19:30ean, eta bigarrena 22:30ean. Bigarren saio honetan, gonbidatu berezi bat izango dute, Petti abeslaria. Ekimenarekin bat egin nahi izan du bakarlarriak, eta abesti batzuk jotzeko prest azaldu da. Oinkari

dantza taldea, Eresergi abesbatza, Loatzo musika eskola eta Lain musika taldea, aldiz, bi saioetan egongo dira.

‘Berria’ren erakusketa

Berria egunkariaren azken urteetako bilakaera azaltzen duen erakusketa bihar arte egongo da zabalik Gurea antzokiko bigarren solairuan. Gaur, 17:00etatik 19:00etara irekiko dituzte ateak, eta bihar, 11:00etatik 13:00etara. Erakusketan egunkariaren ibilbidea laburtzen duten argazkiak ikusteaz gain, bideo proiektzioa ere jarri dute. Horrekin batera, Egunkariaren itxierari buruzko *Gezurra ari du* liburua erosteko aukera jarri dute erakusketan, sei euroren truke.



Argazkiak, azalak, bideo proiektzioa... jarri dituzte ‘Berria’ren inguruko erakusketan, Gurea antzokian. A. IMAZ

Ingalaterran izan berri den Munduko Gazta Txapelketan Tolosaldeko hiru gaztagile saritu dituzte: Orexako Oihan Txikik urrezko domina lortu du, Tolosako Martin Txikik zilarrezkoa eta Berastegiko Lartek brontzezkoa.

Eskualdeko gaztak, onenen artean

Itzi Terradillos

Beste behin ere eskualdeko gaztagileen lan ona agerian geratu da. Birminghamen (Ingalaterra) izan berri da Munduko Gazta Lehiaketa, eta Tolosaldeko hiru gaztagileen gaztek saria jaso dute. Ez da nolana hiko saria, kontuan hartuta, 20 urte dituen lehiaketa munduko entzutetsuena dela, eta azken edizioan 30 lurraldetako 2.781 gaztek hartu zutela parte. 255 dastatzailek osaturiko epaimahaia Orexako Oihan Txiki kooperatiba, Berastegiko Larte eta Tolosako Martin Txiki saritu ditu, domina banarekin.

Orexako Oihan Txiki kooperatibak urrezko domina jaso du, ke-turiko gazten sailean. 1989an sortu zen baserriko produktuak ekoizten dituen kooperatiba. Duela lau urte aurkeztu ziren Munduko Txapelketara estreinakoz, eta ordutik, urrezko hiru domina, zilarrezko bat eta brontzezko bi eskuratu dituzte.

Josune Malkorra kooperatibako langileak adierazi duenez, «oso gustura» daude lortutako sariarekin. «Lanean, ahal den egokien aritu eta saria jasotzea oso pozgarria da». Malkorrek azaldu moduan, «saria pertsonalki oso ona da, baina jendeak ez du gehiegi ezagutzen txapelketa hau». Idiazabal jatorrizko deituraren barruan daude euren gaztak, eta beraiek animatuta parte hartu ohi dute lehiaketa honetan.

Egun bizi dugun egoerari dagokionez, «gaztaren ekoizpena urte-tik urtera jaisten» ari dela dio Malkorrek. «Mozkin-marjina geroz eta txikiagoa da, izan ere, erabiltzen dugun materialaren prezioa igotzen ari den bitartean,



Berastegiko Arantxa Garaiburu, Tolosako larunbateroko azokan. HITZA

gure prezioak ezin dira maila berean igo».

Zilarra eta brontzea

Tolosako Montezkue auzoko Martin Txiki baserrian ere «oso pozik» daude lortu duten zilarrezko dominarekin. Sei aldiz aurkeztu dituzte euren gaztak lehiaketan, eta guztietan jaso dute saria. Orotara, urrezko bi domina, brontzezko bost eta zilarrezko lau batu dituzte. Hori bai, lehiaketa honi ez zaiola lehen zuen garrantzia ematen diote bertatik: «lehen sari hauek jasotzea oso garrantzitsua izaten zen, eta oihartzun handia izan ohi zuen, baina gaur egun ia ez da aipatu ere egiten».

Gaztagile lana «lan gogorra» dela diote Martin Txiki baserrikoek. «Abendu erdialdera hasten gara gazta berria egiten, eta abuztuaren azkenera arte egoten gara lanean; oso lotua da, eguneroko

jarduna eskatzen duena». Bestalde, egungo egoera kontuan hartuta, «urte ona» izan da eurentzat, gazta berria egiten hasterako iazko guztia saldua zutelako.

Berastegiko Arantxa Garaiburuk ere badaki zer den urtero saria jasotzea. Larte izenpean egin ohi dituzte gaztak, eta sei urte daramatzate lanean. Azken Munduko Gazta Lehiaketan brontzezko domina jaso dute, eta orotara, super urrezko domina bat, urrezko bat, zilarrezko bat eta brontzezko bost batu dituzte aurkeztu diren sei aldietan.

«Oso pozik» dago jasotako sariarekin. «Gure lana ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara, beraz, eskertzekoa da horrelako sariak jasotzea», adierazi du Garaiburuk. Lehiaketak lehen zuen oihartzuna izan ez arren, jendeari erosterako orduan saridun gaztak erostea gustatzen zaiola dio,



Orexako Oihan Txiki kooperatibako Josune Malkorra. IT



Tolosako Martin Txiki baserriko Pedro Zuzuarregi. IGL

beraz, «garrantzitsua da zure gaztak saria izatea». Bestalde, «egungo egoera ona izan ez arren», lanean jarraitzeko asmoa dutela dio berastegiarrak.

Gisa honetako sariak irabazteko gakoaz galdetuta, ez dagoela sekreturik dio: «Gaztak egiteko errezeta gaztagile guztientzat bera da, eta askotan ez da jakiten nolako gazta aterako den, egunaren arabera ere izaten dela esan daiteke».

↓ Sarituak

- **Orexako Oihan Txiki kooperatiba.** Urrezko saria, gazta ke-turiko sailean.
- **Berastegiko Larte.** Brontzezko saria, jatorrizko deitura gaztarengatik.
- **Tolosako Montezkue auzoko Martin Txiki baserria.** Zilarrezko saria, jatorrizko deitura gaztarengatik.

📍 Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

-Eskertza- Joxelu Andueza

Familiak eskerrak eman nahi ditu Joxeluren heriotza dela eta. Zaila da hitz gutxitan adieraztea jendearengandik jasotako babesa eta laguntza. Mila esker une hauetan guregana hurbildu zareten guztioi.

Joxeluren sendiak

TOLOSAN, 2013ko urtarrilaren 11n



13°
6°

GOIZA	LANITUTA
ARRATSALDEA	LANITUTA
BEROENA	10°
HOTZENA	3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza. Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agenda

MUSIKA

- **Tolosa.** Gaur, Los Panchos taldearen emanaldia izango da, 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Alegia.** Gaur, 22:30ean, Gaztetxean, Mutürbeltz eta Brontze taldeek kontzertua eskainiko dute.
- **Tolosa.** Gaur, Manent eta Desordutan taldeen kontzertua izango da, Bonberenean, 22:30ean.
- **Tolosa.** Bihar, Ciclos Iturgaiz taldearen tekno-pop-punk erritmoak entzunngo dira, eta baita Kokoshka eta GGQuintanilla taldeak ere 22:30etik aurrera, Bonberenean.
- **Tolosa.** Etzi, Arimaz kamera orkestrak lurreamendin kontzertua eskainiko du, 11:15ean hasita.

ZINEMA

- **Tolosa.** Bihar, hilak 12, Leidor zineman, *Las sesiones* filma ikusteko aukera izango da, 19:30ean eta 22:30ean. Etzi, igandea, 17:00etan, haurrentzako filma izango da, eta 19:30ean eta 22:00etan, *Las sesiones* eskainiko dute. Astelehenean, ikuslearen egunean, 20:30ean, *Las sesiones* filma.

BESTELAKOAK

- **Anoeta.** Dantza Soka Eguna ospatuko dute otsailaren 2an, eta horretarako lehen entseguak gaur egingo dituzte. Axeri dantza, fandangoa eta arin-arin antzergatuko dituzte, 19:00etatik aurrera, Mikelasa-gasti auditoriumean.
- **Leitza.** Herriar antolatuta, euskal preso eta iheslarien etxeratzeari eskatzeko Bilbon

egiten den urteroko manifestaziora joateko autobusak antolatuta dituzte. Txartelak Torrea tabernan jarri dituzte salgai, eta gaurkoa da erosteko azken eguna. Autobusak 15:00etan aterako dira.

- **Amasa-Villabona.** Berria egunkariaren aldeko hainbat eragilek antolatutako jaialdia izango da. Lehena 19:30ean eta bigarrena 22:30ean izango dira. Oinkari dantza taldea, Eresargi abesbatza, Loatzo musika eskola, eta Lain musika taldea ariko dira. Bigarren emanaldian, haez gain, Petti abeslaria izango da. Sarrera bost euroko da.
- **Tolosa.** Zezen plazako segurtasuna dela eta, azken egunak dira propasamenak egiteko. Oharrak: *komunikazioa@tolosakoudala.net* helbide elektronikora bidali behar dira.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** Bihar, *Buelta* ikuskizuna izango da, Behi bis taldearen eskutik. 18:00etan, Topic zentroko aretoan emango da.

ERAKUSKETAK

- **Amasa-Villabona.** Berria Komunikazio taldeari laguntzeko erakusketa egongo da zabalik, Gurea antzokian. Gaur, 17:00etatik 19:00etara eta bihar, 11:00etatik 13:00etara.
- **Tolosa.** Iraia Okinaren ilustrazioak, eta Javier Baldaren eta Nerea Ugarteren lanak ikusgai daude, Aranburu jauregian, hilaren 26a bitartean.

IKASTAROAK

- **Tolosa.** Osasun eta Prebentzioaren astearen harira DYAK

Agurrak



Zorionak!

Alizek bihar 2 urte eta Kimetzek asteazkenean 9 urte egin zituen. Zorionak etxeko txikiari eta handienari.



Zorionak!

Haizea (Ibarra). Zorionak eta 6 muxu potolo etxekoan partetik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak



Urte askotako Sorgintxo!

Iraiti Iturbe Galdos. Gaur, 3 urte. Muxu handi bat Legorretako eta Ezkioko familiaren partetik!



Urte askoan!

Aratz (Tolosa). Bihar 11 urte! Zorionak Mitxelena familiaren partetik. Ondo pasa eguna.

ikastaro eta hitzaldiak eskainiko ditu hilaren 14tik 18ra. Euskaraz eta doan izango dira saio guztiak, Tolosako kultur etxean. 19:00etatik 21:00etara izango dira. Izena eman nahi duenak 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu beharko du, edota *irakaskuntza.eskola@DYAgipuzkoa.com* helbidera idatzi.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48. Gauekoa: Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Egunekoa eta gaue-

- koa: Iturrioz, L. Euskal Herria kalea, 3. Telefonoa: 943 67 09 15.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.
- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.

- **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Egunekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49. Gauekoa: Olarreaga, M. Martin J. Iraola etorbidea, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan etairitzien erantzukizunik.

Amasa-Villabonak ziztada berriari

jaialdia berriaren alde
Gurea antzokian

Urtarrilak 11 ostirala
Bi saio:
19:30ean eta 22:30ean
Sarrera: 5 €

Lain Musika Taldea
Eresargi abesbatza
Eresargi gazteak